Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3947

AGINDUA, 2010eko maiatzaren 13koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Uztai Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Berangoko (Bizkaia) «Fundación Uztai Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskabidearen espedientea ikusi da.

AURREKARIAK

1.– «Intaremit SA» eta «Diócesis de Mbujimayi de la República Democrática del Congo, Batia Ruradix, Sociedad Cooperativa» sozietateek, eta Ana María Beramendi Marauri eta María Trinidad Echevarría Barrenetxea andreek «Fundación Uztai Fundazioa» eratu dute, eratze-eskritura publiko bidez. Eskritura hori 2010eko otsailaren 24an eman zen Bilboko José Ignacio Uranga Otaegui notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 469).

2010eko martxoaren 4an sartu zen eskritura hori Justizia eta Herri Administrazio Sailean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren Aholku Batzordea bildu zen, fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko. Batzorde horrek fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen 2010eko apirilaren 22an.

2.– «Fundación Uztai Fundazioa» delakoaren helburua estatutuen 3. artikuluan dago jasota:

Helburu orokorra: «Fundación Uztai Fundazioa»ren helburua haren testuinguru fisiko, sozial eta espiritualean buruko osasuna bultzatzeko azterlan, ikerketa eta estrategiak garatzea da. Halaber, buruko gaixotasun eta nahasmenek jotako pertsonen onurarako azterlan eta ikerketak garatuko ditu; eta bereziki, bilakaera luzeko gaixotasun larriak edo ezintasunak dituzten edo gizartean zokoratuta edo nolanahiko baztertze-egoeran dauden pertsonei laguntzeko. Buruosasuna prebenitu eta bultzatzeko estrategia eta politikei laguntzeko jarduerak garatzeko asmoa ere badu.

Helburu espezifikoak: fundazioak, bere helburu orokorraren barruan, honako ekintza garrantzitsu hauek gauzatuko ditu laster:

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

3947

ORDEN de 13 de mayo de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada «Fundación Uztai Fundazioa».

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada «Fundación Uztai Fundazioa», de Berango (Bizkaia), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por «Intaremit, S.A.», «Diócesis de Mbujimayi de la República Democrática del Congo, Batia Ruradix, Sociedad Cooperativa», doña Ana María Beramendi Marauri y doña María Trinidad Echevarría Barrenetxea se ha constituido la denominada «Fundación Uztai Fundazioa» mediante Escritura pública de constitución otorgada el 24 de febrero de 2010, ante el Notario de Bilbao, D. José Ignacio Uranga Otaegui, número 469 de su protocolo.

Dicha escritura tuvo entrada en el Departamento de Justicia y Administración Pública el 4 de marzo de 2010.

Reunida la Comisión Técnica de la Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones del País Vasco con la finalidad de verificar la licitud e interés general de los fines fundacionales, emite, con fecha 22 de abril de 2010, informe favorable a su inscripción registral.

2.– El fin fundacional de la denominada «Fundación Uztai Fundazioa» viene establecido en el artículo 3 de su norma estatutaria:

Objetivo general: la «Fundación Uztai Fundazioa» tiene como misión desarrollar estudios, investigaciones y estrategias para promover la salud mental en su contexto físico, social y espiritual. Asimismo, desarrollará estudios e investigaciones para servir al interés general de las personas afectadas por enfermedades y trastornos mentales, especialmente por aquellas que se encuentran en situación de enfermedad grave de larga evolución, discapacidad y afectadas de exclusión social o de cualquier tipo de marginación. Se propone también desarrollar actividades que apoyen estrategias y políticas de prevención y promoción de la salud mental.

Objetivos específicos: la fundación, dentro de su objetivo general, tendrá como actividades concretas más importantes e inmediatas las siguientes:

1) Osasun- eta gizarte-baliabideak, elkarbizitzakoak eta erresidentzialak aztertzeko bideragarritasun-proiektu eta -azterlanak egitea, buruko gaixotasunak dituztenentzako eta ezinduta edo gizartean baztertuta daudenentzako, edozein izanik ere haien adina, generoa eta egoera.

2) Buruko osasuna sustatzeko programa eta proiektuak garatzea, herrietan zein nazioartean.

3) Buruko gaixotasunak dituztenen, ezinduen eta gizartean baztertuta daudenen giza eskubideak bultzatu eta defendatzea.

4) Helburu horien alor espezifikoan, garapen bidean diren herrialdeekiko elkartasun-ekintza bat egitea.

5) Buruko gaixotasunaren eta hura kroniko bihurtzearen kausak prebenitzeko lan egitea, bai eta zokoraketa eta gizarte-bazterketaren estigma prebenitzeko ere.

6) Fundazioak jomuga duen kolektiboari arreta emateko adituak trebatzea.

7) Fundazioaren helburu sozialari buruzko ikerketa-lanak garatzea, eta lortutako ezagutza gizartean zabaltzea, gizarteak fundazioaren jardueretan lagun dezan bultzatuta.

8) Fundazioaren helburuak gauzatzeko lagungarri izan daitekeen beste edozein.

3.– Fundazioaren egoitza, fundazioaren estatutuetako 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau da: Abarotxu Bidea, 30, Berango (Bizkaia).

4.– Ondare-zuzkidura hogeita hamar mila eurokoa da (30.000), eta egoki eta aski iritzi zaio fundazioaren helburuak lortzeko, Fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 12.1 artikuluaren arabera. Azken xedapenetatik lehenengoaren indarrez aplikatu behar da artikulu hori.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetako 12. eta 19. artikuluan jartzen duen moduan.

6.– Hasierako Patronatua, estatutuetako 11. artikuluan ezarritakoaren haritik Fundazioaren eraketa-eskrituran xedatutakoaren arabera, honako honek osatzen du:

1) Realizar estudios y proyectos de viabilidad de recursos sanitarios, sociales, de convivencia y residenciales destinados a los enfermos mentales y apersonas discapacitadas y en situación de exclusión social, cualesquiera que sea su edad, género y condición.

2) Desarrollar programas y proyectos de promoción de la salud mental tanto a nivel local como internacional.

3) Promover y defender los derechos humanos de la persona enferma mental, de la discapacitada y de la que se encuentra en situación de exclusión social.

4) Realizar una acción solidaria con los países en vías de desarrollo en el campo específico de estos objetivos.

5) Actuar sobre la prevención de las causas de la enfermedad mental y de su cronificación, así como del estigma y de la marginación y exclusión social.

6) Formar expertos en la atención al colectivo objeto de la Fundación.

7) Desarrollar trabajos de investigación sobre el objeto social de la Fundación y divulgar en la sociedad los conocimientos adquiridos, intentando incentivar la colaboración de la sociedad en las actividades fundacionales.

8) Cualesquiera otras que puedan ser conducentes a la realización de sus finalidades propias.

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los Estatutos fundacionales, radicará en: Abarotxu Bidea, 30, Berango (Bizkaia).

4.– La dotación patrimonial asciende a la cantidad de treinta mil (30.000) euros, la cual se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición final 1.ª.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con los artículos 12 y 19 de los Estatutos fundacionales.

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional siguiendo lo establecido en el artículo 11 de los Estatutos, está integrado por:

Kargua		Iraupena
Lehendakaria	Doña Ana María Beramendi Marauri	Mugagabea
Lehendakariordea-idazkaria	Doña María Trinidad Echevarría Barrenechea	Mugagabea
Bokala	Intaremit SA., Juan Carlos Díaz Userok ordezkatua.	Mugagabea

Kargua		Iraupena
Bokala	Batia Ruradix, Jon Sáez Damborenak ordezkatutako kooperatiba-sozietatea.	Mugagabea
Bokala	Mbujimayi-en Diozesia, Theodore Kalenda-k ordezkatua.	Mugagabea

Cargo		*Duración*
Presidenta	*Doña Ana María Beramendi Marauri*	*Indefinida*
Vicepresidenta-Secretaria	*Doña María Trinidad Echevarría Barrenechea*	*Indefinida*
Vocal	*Intaremit S.A., representada por D. Juan Carlos Díaz Usero.*	*Indefinida*
Vocal	*Batia Ruradix, Sociedad Cooperativa representada por D. Jon Sáez Damborena.*	*Indefinida*
Vocal	*Diócesis de Mbujimayi representada por D. Theodore Kalenda.*	*Indefinido*

Izendatuek onartu dute dagokien kargua, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.– Halaber, Fundazioaren estatutuetako 20. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, patronatuak Ana María Beramendi Marauri andreari ematen dio boterea fundazioaren ohiko kudeaketaz eta haren izenean bestelako jarduerak gauzatzeaz ardura dadin, fundazio-eskrituretako bosgarren atalean aipatzen diren ahalmenez baliatuz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Halaxe agintzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan.

Bigarrena.– Legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Arauak eta oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerako arauak ikusi dira.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak

Las personas nombradas han aceptado sus cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

7.– El Patronato de la Fundación, de acuerdo con lo establecido en el artículo 20 de los Estatutos, confiere Poder a Dña. Ana María Beramendi Marauri, para que se encargue de la gestión ordinaria y de realización de otras actividades en nombre de la misma con las facultades que se enumeran en el apartado quinto de la Escritura fundacional.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco; el artículo 3 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio; y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y ss. del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistas las normas mencionadas y demás normas de general y pertinente aplicación.

La Consejera de Justicia y Administración Pública:

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaur, F-267 zenbakiaz, Berangoko (Bizkaia) «Fundación Uztai Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 4. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2.2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko maiatzaren 13a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de F-267, de la constitución de la denominada «Fundación Uztai Fundazioa» de Berango (Bizkaia), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 4.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme lo dispuesto en el artículo 2.2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso Contencioso-Administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de mayo de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.